# Donostiak 2019ko Europa Saria jasoko du irailaren 19an

*Europako bandera Udaletxean jarriko da Europako Egunean*

Asteburu honetan, Donostiako Udalak Europako bandera zintzilikatuko du erdiko mastan, bihar ospatuko den Europako Egunarekin bat eginik. Datorren irailaren 19an, Donostiak 2019ko Europa Saria jasoko du, hain zuzen ere, apirilaren 11n Europako Kontseiluak emandakoa, Europa eraikitzeko baloreak zabaltzeko hiriak egindako ahaleginagatik.

Igandean, maiatzak 5, Europako Eguna ospatzen da; egun horretan, duela 70 urte, Europako 47 estatu, Bielorrusia izan ezik, biltzen dituen Europako Kontseilua eratu zela oroitzen da. Europako Kontseilua nazioarteko erakunde bat da, eta helburu nagusia da giza eskubideak (bereziki, zibilak eta politikoak), demokrazia eta Zuzenbide Estatua defendatzea, babestea eta sustatzea.

**Eneko Goia** alkateak azpimarratu duenez, “egun berezia da Donostiarentzat, aurten, Europako milaka hiriren artean, Europako Saria eman digutelako, Europako balioen alde egindako lanarengatik, eta Europako beste hiri batzuekin lankidetzan aritzeko gure ahaleginagatik eta baita hiriak egindako elkartasun adierazpen ugarirengatik ere”.

Goiak azaldu duenez, “Donostiak europarra sentitzen du bere burua, eta bere balioetan indartu behar duen Europa batean duen papera aldarrikatzen du, gizateriaren ondarea, une hauetan bezalako une batzuetan, aurretik ditugun erronka izugarriekin”.

"Saria, batez ere, bere balioengatik harro sentitzen den Europa bati elkartasuna erakusten dion hiria izateagatik da", goraipatu du alkateak. Goiak nabarmendu duenez, "adibide asko jar genitzake, baina, Donostiak Europako Giza Eskubideekin duen konpromisoaren adierazgarri gisa, Aieteko Bakearen eta Giza Eskubideen Etxean “Eskura Zentroa” (Giza Eskubideen Baliabide Pedagogikoen Zentroa) sortu berri da".

Goiak amaitu du esanez, “maiatzaren 5ean egun garrantzitsua ospatuko dugu, Europak demokrazia eta giza eskubideak babesteko duen konpromisoaren bat eginik eta Europako Kontseiluko Biltzar Parlamentarioaren eskutik irailaren 19an jasoko dugun Europa sariarekin.

Donostia, 2019ko maiatzaren 4a

# Donostia / San Sebastián recibirá el 19 de septiembre el *Premio Europa*

*La bandera europea ondea en mástil central del Ayuntamiento en el Día de Europa*

El Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián luce durante este fin de semana en su mástil central la bandera europea, coincidiendo con el día de Europa que se celebra mañana. La ciudad recibirá el próximo 19 de septiembre el Premio Europa 2019, que se otorgó el pasado 11 de abril por parte del Consejo de Europa por su contribución en la difusión de los valores de la construcción europea.

El domingo, 5 de mayo, se celebra el Día de Europa, en conmemoración de la creación del Consejo de Europa hace 70 años, agrupando a los 47 estados de Europa con la sola excepción de Bielorrusia. El Consejo de Europa es una organización internacional que tiene como objetivo principal la defensa, protección y promoción de los derechos humanos (en particular los civiles y políticos), la democracia y el Estado de Derecho.

El alcalde **Eneko Goia** ha subrayado que "es un día especial para Donostia / San Sebastián porque este año nos han otorgado, entre miles de ciudades de Europa, el Premio de Europa, como reconocimiento a nuestra labor en pro de los valores de Europa y a nuestro esfuerzo por construirla a través de la colaboración con otras ciudades europeas y las innumerables expresiones de solidaridad de la ciudad".

Goia ha explicado que "San Sebastián se siente europea y reivindica su papel protagonista en una Europa que necesita ser reforzada en sus valores, patrimonio de la humanidad, en momentos como estos, con los enormes desafíos que tenemos por delante".

"El Premio es, sobre todo, un reconocimiento a una ciudadanía solidaria y abierta a una Europa que se siente orgullosa por sus valores" ha resaltado el alcalde. Goia ha enfatizado que "podríamos poner muchos ejemplos, pero, como exponente de este

compromiso de Donostia / San Sebastián con los Derechos Humanos desde Europa, es el recientemente creado Centro Eskura (Centro de Recursos Pedagógicos en Derechos Humanos) en la Casa de la Paz y los Derechos Humanos de Aiete".

Goia ha finalizado recordando que "el 5 de mayo celebramos un día importante comprometidos con el ideal de Europa en defensa de la democracia y de los derechos humanos para todas las personas con ese Premio de Europa que recibiremos el 19 de Septiembre en Donostia / San Sebastián de manos de la asamblea parlamentaria del Consejo de Europa".

Donostia / San Sebastián, 4 de mayo de 2019